

GAIZTOA IZAN NAHI EZ ZUEN OTSOA

Iñaki Aldai

ialday@irakasle.net

PERTSONAIAK

. Ipuin idazlea	. Mutila	Antxumea 4	. Printzesa
. Otsoa	. Behia	. Antxumea5	. Herritarra 1
. Txerria 1	. Antxumea 1	. Antxumea 6	. Herritarra 2
. Txerria 2	. Antxumea 2	. Antxumea 7	. Herritarra 3
. Txerria 3	. Antxumea 3	. Herensugea	

* Behar izanez gero antxumeak gutxitu daitezke. Herensugea printzesa eta herritarrak ere, kendu edo gutxitu daitezke.

* Lehen Hezkuntzan egiteko egokia.

(Eszenatokiko izkina batean Ipuin Idazlea ipuina idazten ari da. Idazten ari dena ozenki ahozkatuz doa. Aldi berean Eszenatoki erdian, Txerri bakoitza kartoizko ate baten atzean dago. Idazleak ahozkatzen doana antzezten dute)

Ipuin Idazlea: "Txerri gazteenak lastozko etxea egin zuen. Ertainak egurrezkoa eta nagusienak harrizkoa. Orduan otsoa hurbildu zen."

Otsoa: Ireki atea!

Txerria 1: Ez, ez eta ez.

Otsoa: Ireki atea edo putz eginez etxea hankaz gora botako dut.

Txerria 1: Otso gaiztoa! Otso gaiztoa!

(Otsoa une batez pentsakor gelditzen da).

I. Idazlea: "Orduan, otsoak putz eta putz egin eta etxea jaurti zuen." (*Otsoak eta txerriak I. Idazleak idatzi eta ahozkatzen doana antzezten doaz*).

"Txerri gazteena korrika atera zen anaiaren etxera, eta otsoa bere atzetik, txerri gizajoa jaten saiatu zen."

Txerri 1: Aaahhh! Otso gaiztoak jan egin nahi nau. Anaia lagundu.

Otsoa: Ireki atea!

Txerria 1+2: Ez, ez eta ez.

Otsoa: Ireki atea edo putz eginez etxea hankaz gora botako dut.

Txerria 1+2: Otso gaiztoa! Otso gaiztoa!

(*Otsoa berriro ere pentsakor gelditzen da*).

I. Idazlea: "Otsoak putz eta putz egin eta etxea jaurti zuen." (*Otsoak idazleak esandakoa egiten doa*)

"Txerriak ihesi hasi ziren." (*Txerriek idazleak esandakoa egiten dute*) "Eta otsoa garraxika eta korrika hauek jaten saiatu zen."

(*Baina otsoa mugitu gabe eta isilik gelditzen da*).

I. Idazlea: (*Berriro*) "Eta otsoa garraxika eta korrika hauek jaten saiatu zen."

I. Idazlea: (*Pazientzia galtzen doa eta oraingoan zuzenean otsoari hitz egiten dio*) Ez duzu entzun? Garraxika

eta korrika egin behar duzu! Segi korrika txerrien atzetik.

Otsoa: Nahikoa da! Ez dut txerri gehiago jango, ezta etxerik apurtuko.

I. Idazlea: Nola ez duzula txerri gehiago jango?

Otsoa: Ez, ez eta ez. Aspertuta nago ipuin guztietan gaiztoa izaten.

I. Idazlea: Baina, baina... Zoratu egin al zara? Segi oraintxe bertan txerrien atzetik!

Otsoa: Ezetz! Zintzoaren papera egiten dudan ipuin bat asmatu ezazu.

I. Idazlea: Zintzoaren papera??? Otsoak???

Otsoa: Ipuin hori asmatu arte, ez dut beste inongo ipuinetan parte hartuko. Agur.

I. Idazlea: Ez genuen besterik behar.

Txerria 3: Zer egingo dugu orain?

I. Idazlea: Tira, tira, ez dut uste otsoaren papera egitea horren zaila izango denik.
Badakit! Eskolako mutil bati esango diot otsoarena egiteko.

(Txerriak irten egiten dira eta idazlea berriro eszenatokiaren izkinan, idazten eta ahozkatzen hasten da. Mutilak otsoaren kareta gaintik amonaren kareta du)

I. Idazlea: "Orduan, atea jo zuten eta otsoak etxera sartzeko eskatu zion. Txanogorritxu amonarengana hurbildu zen."

Txanogorritxu: Kaixo amonatxo, Hemen daukat bazkaria zuretzako.

Mutila: *(Ikuslegoari hitz eginez)* Ohh zein neskatxa ederra eta jatorra. Bat-batean maitemindu egin naizela ustedut.

Txanogorritxu: Amonatxo, amonatxo, nolako belarri haundiak dituzun.

Mutila: Zure ahots goxoa hobeto entzuteko.

Txanogorritxu: Amonatxo, amonatxo nolako begi haundiak dituzun.

Mutila: Zein polita zaren hobeto ikusteko.

Txanogorritxu: Ai, bai gauza politak esaten dizkidazula.
Amonatxo, amonatxo, Nolako aho haundia daukazun.

Mutila: Zuri Muxu ederrak emateko. *(Txanogorritxuri musu ematen dio)*

I. Idazlea: *(Eszenatoki erdira sartuz)* Baina, baina... zer arraio egiten ari zara? Zergatik eman diozu muxu Txanogorritxuri?

Mutila: Maitemindu egin naizelako.

I. Idazlea: Otsoa maitemindu? Zuk Txanogorritxu hainkadaka jan behar duzu!

Mutila: Hainkadaka??? Baita zera ere!

Txanogorritxu, nahi duzu nirekin kilkerak harrapatzera etorri?

Txanogorritxu: Bai, banoa zurekin zoro honekin gelditu baino lehen. Goazen.

I. Idazlea: Baina, baina...hau da desastrea. Beste norbait aurkitu beharko dut otsoaren papera egiteko. Baina nor?
(pentsataen gelditzen da) Badakit, animaliren bati esango diot. Behiari! Hori da, Behiari!

(Ipuin Idazlea berriro eserita idazten hasten da eta behiak, bere kareta-aren gainean otsoaren kareta jartzen du)

I. Idazlea: "Zazpi antxumeak etxe barruan zeuden otsoak atea jo zuenean."

Antxumea 1: Nor da?

Behia: Ireki atea, zuen amatxo naiz.

Antxumea 2: Ez, ez eta ez.

Antxumea 3: Gure amak ahots gozoa dauka.

Antxumea 4: Zu otsoa zara.

Behia: Kaka zaharra! Igarri egin dute. Arraultze zuringoak jango ditut ahotsa leuntzeko.

(Arraultze zuringoak jaten ditu eta atea jotzen du berriro).

Antxumea 5: Nor da?

Behia: *(Ahots gozoa erabiliz)* Ireki atea, zuen amatxo naiz.

Antxumea 6: Erakutsi oina.

(Ate izkinatik erakusten du.)

Antxumea 7: Ez, ez eta ez.

Antxumea 1 Gure amak oin zuria dauka.

Antxumea 2: Zu otsoa zara!

Behia: Arraioa! Berriro ere asmatu dute. Irinarekin zurituko dut oina.

(Oina irinarekin zuritu eta atea jotzen du.)

Antxumea 3: Nor da?

Behia: *(Ahots gozoa erabiliz)* Ireki atea, zuen amatxo naiz.

Antxumea 4: Erakutsi oina.

(Ate izkinatik erakusten du.)

Antxumea 5: Bai! Gure amatxo da!

I. Idazlea: "Eta atea ireki ziotenean, otsoa antxumeak jaten hasi zen."

(Besteek antzeztu egiten dute. Behia antxumeen atzetik korrika eta garririk ibili ondoren, antxume bat harrapatu eta haginkada bat ematen dio)

Behia: Puaaaaag. Hau da gauza higuigarria! Zer janari mota da hau? Aizue, ez daukazue beste ezer jatekorik? Belarra edo horrelako zerbait...

Antxumea 5: *(Oraindik beldurturik)* Zeraaa, belarra ez, baina letxugaren bat nahi baduzu... *(antxume batek letxuga ekartzen dio).*

Behia: Letxuga! Mmmmmhh bai goxoa. *(Letxuga jaten hasten da).*

I. Idazlea: *(Eszenatokian sartzen da desesperaturik)* Ez da posible, ez da posible. Non ikusi da otsoa letxuga jaten?

Behia: Bai gozoa. Nahi al duzu zatitxo bat?

I. Idazlea: Alde nire begi bistatik. Hau da hondamendia! Horrela ezin dut ipuinik idatzi. Benetako otsoa behar dut. *(Otsoari deika hasten da)*
Otsoa! Otsoa! Etor zaitez mesedez.

(Antxume guztiak badaezpada korrika ateraten dira eszenatokitik. Otsoa sartzen da baina oraindik haserre dago).

I. Idazlea: Otso maitea, nire ipuinetarako behar zaitut.

Otsoa: Asmatu duzu esan nizun ipuina?

I. Idazlea: Ez, oraindik ez.

Otsoa: Orduan, banao.

I. Idazlea: Itxaron! Oraintxe bertan hasiko naiz.

(Eszenatokiko bere izkinan eseri eta idazten hasten da).

I. Idazlea: "Bazen behin, Bihotz oneko otso dotore bat."

(Otsoa eszenatoki erdian dago eta hau entzutean pozten doa).

I. Idazlea: "Herrikoek maite zuten, eta nahiko ausarta zen..."

(Otsoak begirune itsusia botatzen dio Ipuin Idazleari).

I. Idazlea: Ados, ados. "Herrikoek ASKO maite zuten eta OSO ausarta zen."

(Musika entzuten da eta Ipuin idazleak idazten jarraitzen du)

I. Idazlea: "Azkenean, otso ausartak ezpatarekin herensuge gaiztoa hil zuen."

(Otsoak eta herensugeak beraien arteko borroka antzezten dute)

I. Idazlea: "Hala bazan
Ez bazan
Sar dadil..."

Otsoa: Ez, ez ez. Horrela ezin da ipuina bukatu.

I. Idazlea: Nola ezin dela harrela bukatu? Aizu, hemen neu naiz Ipuin Idazlea.

Otsoa: Orduan banoa hemendik.

I. Idazlea: Itxaron, itxaron. Ongi da.
"Herensugea hil zuenean, printzesa erabat maitemindu zen otsoarekin. Biak ezkondu eta festa

haundi bat ospatu zuten. (*printzesak eta otsoak antzeztu egiten dute*).

Eta Hala bazan
Ez bazan..."

Otsoa: (*Idazleari hitz eginez*) Erregea ere izan nahi dut.

I. Idazlea: Erregea??? Zu??? Ongi da. Baina gero beste ipuin guztietan zure lana egin behar duzu.

Otsoa: Baietz, motel.

I. Idazlea: "Eta herritarrek, erakutsitako ausardia eta bihotz onarengatik errege izendatu zuten."

Herritarra 1: Gara erregea!

Herritarra 1+2+3: Gora!!!

(*Otsoak Ok-ko keinua egiten dio Ipuin idazleari*).

I. Idazlea: "Hala bazan
Ez bazan
Sar dadila
Kalabazan
Eta irten dadila
Eibarko plazan."